

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

ENPLEGU, MERKATARITZA, TURISMO ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA

237/2025 Foru Agindua, maiatzaren 27koa. Aldatzea maiatzaren 15eko 175/2015 Foru Agindua, onesten duena Arabako Foru Aldundiaren Administrazio Orokorreko lan poltsen araudia

Maiatzaren 15eko 175/2015 Foru Aginduz, onetsi zen Arabako Foru Aldundiaren lan poltsen araudia.

Onetsi zenetik igaro den denborak erregulazioaren hainbat alderdi eguneratzea gomendatzen du.

Hala, aldi baterako enplegua egonkortzeko enplegu publikoaren eskaintza amaitu ondoren, eta kontuan hartuta 2019. urteko enplegu publikoaren eskaintza ebazpen fasean dagoela, egin-dako azken hautaketa prozesuen ondorioz sortutako lan poltsak sartu behar dira, eta indarrrik gabe utzi 2011ko enplegu publikoaren eskaintza baino lehenagoko lan poltsak.

Bestalde, beharrezkoa da araudia egokitzea Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bateginean sartutako aldaketetara (testu bategin hori urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Dekretuaren bidez onetsi zen, Enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiako neurriei buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legearen bidez).

Azkenik, seigarren bis artikuluko berri bat gehitu behar da, haurdunaldi, amatasun eta aitatasun, adopzio eta harrera egoeran dauden pertsonentzako deialdien kasuak arautzeko.

Proposamena langileen ordezkariari helarazi zaie negoziatzeko, eta entzun egin zaie.

Foru agindu hau izapidetzeko, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak jasotako arautze onaren printzipioei jarraitu zaie, zeinak Arabako Foru Aldundiaren xedapen orokorrak egiteko prozedura onesten duen otsailaren 28ko 6/2023 Foru Dekretuaren 3. artikuluan ere jasota baitaude. Horrela, azaldu ditugun aurrekarietan, behar bezala justifikatu da araudi berri baten beharra, eta, gainera, araugintzako jardura neurritzeko da, lortu nahi den helburua lortzeko ezinbestekoa den gutxienez mugatu baita. Foru dekretua egiteko, kontuan hartu dira Arabako Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako V. Foru Planaren (2022-2026) oinarri diren emakumeen eta gizonen arteko berdintasun printzipioak, bai eta Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onesten duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren edukia ere. Era berean, segurtasun juridikoaren printzipioa bermatzen da; izan ere, behar bezala justifikatuta dago bai antolamendu juridikoan sartzea, bai ematen duen organoaren gaikuntza ere. Gardentasun printzipioari dagokionez, ez da urratu, arau xedapenak argi eta garbi identifikatzen baitu helburua, eta onartu eta berehala ALHAOn argitaratzeko agindu baita. Efizientzia printzipioari dagokionez, proposatu den arauketak, bere izaera dela-eta, ez dakar zama administratibo osagarrikerik edo alferrikakorik, ezta baliabide publikoaren kontsumo handiagorik ere. Sinpletasunaren eta ulergarritasunaren printzipioei dagokionez, proposatutako testua modu egituratuan eta hizkera argia eta ulergarria erabiliz idatzi da.

Diputatuen Kontseiluaren uztailaren 30eko 154/1993 Foru Dekretuaren bidez, funtzio publikoaren arloko eskumenak ezarri ziren, eta ekainaren 1eko 23/2021 Foru Dekretuaren bidez, Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Sailaren egitura organikoa eta funtzionala onetsi zen. Horrez gain, diputatu nagusiaren ekainaren 30eko 152/2023 Foru Dekretuak Arabako Foru Aldundiaren sailak zehaztu zituen 2023-2027 legegintzaldirako. Horrela, bada, bat etorritik dekretu horietan guztietan xedatutakoarekin, honako hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Aldatzea Arabako Foru Aldundiaren Administrazio Orokorreko lan poltsen araudia onesten duen maiatzaren 15eko 175/2015 Foru Aginduaren eranskineko bosgarren artikulua. Honela idatzita geratzen da:

“Bosgarren artikulua. Lan poltsen lehentasun ordena

Ondoko lehentasun ordena hau finkatzen da:

1) Arabako Foru Aldundiaren 2019ko enplegu publikoaren eskaintzari eta hurrengoei dagozkien hautaketa prozesuen bidez sortzen diren lan poltsak, lehentasuna izango dutenak zaharrenean gainetik.

Lan poltsa horiek izangai hauekin eratuko dira, ordena honetan:

a) Oposizio aldiaren nahitaezko ariketa kanporatzaile guztiak gainditu dituzten eta lanposturik lortu ez duten izangaiak. Deien lehentasun ordena lortutako puntuazio osoaren arabera ezarriko da, lehiaketa aldia barne dela.

b) Nahitaezko ariketa kanporatzaile gehien edo, ariketa bakarra izanez gero, proba gehien gainditu dituzten izangaiak, oposizio fase guztian lortutako guztirako puntuazioa batuta, nahitaezko ariketa kanporatzaileetatik lehenengoa edo, ariketa bakarra izanez gero, lehenengo proba bakarrik gainditu dutenen zerrenda bukatu arte.

Hala ere, aldi baterako langile beharrak ezin badira bete eraturako azken lan poltsan sartutako pertsonekin, ordez eta soilik beste lan poltsa egokirik ez badago, lan poltsa hori handitu ahal izango da, puntuazio ordena zorrotzean, lehen ariketa baztertzalea egin eta ariketa horretan gutxienez 3,50eko puntuazioa lortu duten pertsonekin. Kasu berberetan, deialdiek proba ez-baztertzaleekin ariketa bakar bat egitea aurreikusten dutenean, ondoriozko poltsa handitu ahal izango da proba teorikoan oposizio fasea gainditzeko eskatutako gutxieneko ezagutza maila lortu duten izangaiekin.

2) Arabako Foru Aldundiaren 2016tik 2018ra onetsitako enplegu publikoaren eskaintzari dagozkien hautaketa prozesuen bidez eraturako lan poltsak.

2025eko urtarrilaren 1ean lan poltsetan sartuta dauden izangaiekin finkatuta geratzen dira poltsa horiek, salbu eta horietatik kanpo geratu behar badira behin betiko baja hartzeko arrazoiak tarteko, eta ezin izango dira zabaldu.

3) Arabako Foru Aldundiaren 2007ko enplegu publikoaren eskaintzari dagozkion hautaketa prozesuen ondorioz eraturako lan poltsak.

2025eko urtarrilaren 1ean lan poltsetan sartuta dauden izangaiekin finkatuta geratzen dira poltsa horiek, salbu eta horietatik kanpo geratu behar badira behin betiko baja hartzeko arrazoiak tarteko, eta ezin izango dira zabaldu.

4) 2011. urtetik aurrera aldi baterako lan poltsak eratzeko egin diren deialdi espezifikoetatik eratorritako lan poltsak, berriek lehentasuna dutela zaharrenean gainetik.

2025eko urtarrilaren 1ean lan poltsetan sartuta dauden izangaiekin finkatuta geratzen dira poltsa horiek, salbu eta horietatik kanpo geratu behar badira behin betiko baja hartzeko arrazoiak tarteko, eta ezin izango dira zabaldu.

2007ko enplegu publikoaren eskaintza baino lehenagoko lan poltsa guztiak indarrrik gabe geratuko dira.”

Bigarrena. Aldatzea Arabako Foru Aldundiaren Administrazio Orokorreko lan poltsen araudia onesten duen maiatzaren 15eko 175/2015 Foru Aginduaren eranskineko seigarren artikulua. Honela idatzita geratzen da:

“Seigarren artikulua. Hautaketa prozedura

1) Prozedura orokorra:

Deia “lanerako prest” egoeran daudenei egingo zaie, bosgarren artikuluan ezarritako lehentasun hurrenkerari jarraituz, bete behar den lanpostuaren ezaugarrietarako aproposak diren lan poltsetatik.

Lan lotura hasteko garaian aldi baterako ezintasuneko egoeran aurkitzen den pertsonarik ezin izango da aukeratu.

Lan poltsa bat aproposa izango da lanpostu bat edo eginkizun jakin batzuk betetzeko baldin eta lan poltsak jatorri duen deialdiaren xede diren titulazio talde eta eskala, azpieskala edo klase berberakoa bada lanpostua, edo haietan kokatzen badira eginkizunak.

Egiteko berezien eta lanbideetako kideen klaseetako lanpostuak direnean, lan poltsa aproposa zein den zehazteko, horrez gain kontuan edukiko da bete behar den lanpostuko eginkizunak bat datozela kasuan kasuko deialdian definitutakoekin.

Azaldutakoaren arabera lan poltsa aproposik ez badago, beste poltsa batzuk erabili ahal izango dira, baldin eta antzekotasunik badute bete beharreko eginkizunen eta eskatutako titulazio mailaren aldetik, eta pertsona hautatuak lanpostuen zerrendan ezarrita dauden eskakizunak betetzen baditu. Halakoetan, eskaintza onartzeak ez du aldatuko pertsona hautatuaren "lanerako prest" egoera, eta hari uko egiteak ez du zigorrik ekarriko.

Aurreko aukerak agortuta, eta aldi baterako langile beharrak betetzeko deialdi espezifikoak egin ahal izango diren arren, Arabako Foru Aldundiak, bete beharreko lanpostuen eduki funtzionala kontuan hartuta, beste erakunde batzuetako lan poltsetara jo ahal izango du, publikotasun-, berdintasun-, merezimendu- eta gaitasun-printzipioak betetzen direla bermatu duen hautaketa prozesu batetik badatoz, ordena honi jarraituz:

- a) Arabako Foru Aldundiaren erakunde autonomoak.
- b) Eusko Jaurjaritza.
- c) Vitoria-Gasteizko Udala.
- d) Foru aldundiak.
- e) Sektore Publikoko bestelako erakundeak.

Salbuespen moduan, zenbait beharrian betetzeko dauden berezitasunen arabera, eta langileen ordezkariari entzun eta gero, enpleguko zerbitzu publikoetara jo ahal izango da.

Halako kasuetan, aukeraketa Giza Baliabideen Zerbitzuak egingo du, publikotasun, berdintasun, merezimendu eta gaitasun printzipioak bermatuz.

- 2) Lankidetzaren beste administrazio publiko batzuekin.

Arabako Foru Aldundiak beste administrazio publiko batzuetara bidali ahal izango du, hala eskatzen zaionean, dagokion lan poltsan "lanerako prest" egoeran dauden pertsonen zerrenda, baina, ondorio horietarako, ez dira aplikatuko araudi honetan jasotako hobekuntzei buruzko arauak.

Arabako Foru Aldundiaren lan poltsetan "lanerako prest" egoeran dauden pertsonen zerrenda beste erakunde batzuetara bidaltzeko, beharrezkoa izango da bertan bitarteko langileen etorkizuneko beharrei erantzuteko prest dauden pertsona nahikoak egotea.

Aldi baterako beharrak betetzeko, Arabako Foru Aldundiak beste erakunde batzuetara jotzen duenean, erakunde horiek bidalitako pertsonen zerrendatik ondorioztatzen den lehentasun ordenaren arabera egingo dira deialdiak, eta Arabako Foru Aldundiak ez ditu inola ere aplikatuko jatorrizko erakundearen lan poltsak kudeatzeko araudian hobekuntzen, aparteko deialdien edo antzeko figuren arloan jasotzen diren arauak.

- 3). Zuzeneko hautaketa:

- a) Baldin eta funtzionarioa arrazoi batengatik ordeztzen bada, eta hura amaitzean ordeztutako pertsona beste arrazoi batengatik ez bada lanpostura itzultzen, izendatzeko arrazoia aldatuko da aldi baterako betetzea egiten ari zen pertsonari eutsiz.

b) Aldi baterako programa bat betetzeko edo zereginak metatzeko bitarteko funtzionario izendatzea eragin duten langile beharrak lanpostu zerrendan lanpostu huts bat sortuz finkatzen direnean, hasieran izendatutako pertsonak sortutako lanpostu hutsa betetzeko izendatuko dira.

c) Arabako Foru Aldundiak sortutako lan poltsa batetik deitua izan den bitarteko langile batek betetzen zuen lanpostua edo eginkizunak uzten baditu eta, 4 hilabete pasatu baino lehen, hari dagokion zuzendaritzaren idazki baten bidez hura atxikita zegoen zerbitzuaren barruan lanpostu bera edo eginkizun berberak betetzea eskatzen bada, pertsona berbera izendatuko da, behin bakarrik.

Urtebete baino gutxiago iraungo duela aurreikusita dagoenean baino ez da egingo izendapena, eta izendapenen iraupen metatuak ezin izango du hiru urtetik gorakoa izan, EPOELTBren 10. artikuluan jasotako baldintzetan. Aurreko paragrafoan azaldutakoaren arabera deitzeko ego-kieran pertsona bat baino gehiago egonez gero, bosgarren artikuluan finkatutako lehentasun hurrenkerari jarraituz dei egin behar zaionak izango du lehentasuna.

4). Hobekuntzak:

Arabako Foru Aldundiaren Administrazio Orokorrean zerbitzuak emateko soilik, hobekuntzat hartuko dira Aldundian karrerako funtzionario gisa sartzeko deialdia onetsi ez den kategorietako lanpostu hutsak betetzeko edo lehiaketa deialdi batean sartuta ez dauden lanpostu hutsak betetzeko eskaintzak.

Hobekuntzagatiko deialdia egiteko soilik, lanpostu hutsak izango dira, halaber, zuzenean edo zeharka zerbitzu berezien egoeran edo zerbitzu eginkizunetan betetzen diren lanpostuak urtebetetik gorako iraupena aurreikusita.

Honako kasu hauetan, "lanean" dauden pertsoneri deituko zaie, hobekuntza gisa:

a) Lanpostua betetzen ari diren funtzionarioen ordezeko lanpostuak betetzen ari direnean, baldin eta urtebete baino lehenago itzuliko direla aurreikusten bada eta bete beharreko lanpostua hutsa bada eta aurreikusten bada urtebetetik gora bete beharko dela.

b) Zeregin pilaketagatik bitarteko funtzionario izendatu dituztenean eta bete beharreko lanpostua hutsa bada eta aurreikusten bada urtebetetik gora bete beharko dela.

c) Urtebetetik beherako aldi baterako programak egiteko bitarteko funtzionario izendatu dituztenean eta bete beharreko lanpostua hutsa bada eta aurreikusten bada urtebetetik gora bete beharko dela.

d) Arabako Foru Aldundiko karrerako funtzionarioak direnean, urtebete baino gehiago beteko direla aurreikusten den lanpostu hutsak betetzeko, betiere deia langile horiena baino sailkapen talde handiagoko lan poltsen bidez egiten bada.

e) Egin beharreko zereginak edo bete beharreko lanpostua lanaldi osokoa denean lanaldi partzialeko izendapen baten bidez zerbitzuak ematen ari direnentzat, betiere izendapen berriaren iraupena 6 hilabetetik gorakoa izango dela aurreikusten bada.

f) Betetzen den lanpostuari esleitutako ordainsarrietan ehuneko hamarretik gorako igoera eragiten duten lanpostu hutsak bete behar direnean, betiere honako betekizun hauek betetzen badira:

- izendapen berriaren iraupena urtebetetik gorakoa izatea.
- Kategoria bereko lanpostu huts bat betetzeko aurreko izendapenak gehienez ere bi urte iraungo du.
- Izangaiari dagokion kategoriako lan poltsa baten bidez bete behar bada lanpostu hutsa.

Lan poltsa batetik abiatutako hobekuntza ez zaie aplikatuko lehenago lan poltsa horretatik egindako hobekuntza baten ondorioz lanean ari diren pertsoneri.

Hobekuntzarako eskaintza lan poltsa desberdinetatik badator, bigarren hobekuntza baterako aukera baino ez da egongo. Hobekuntza eskaintza bati uko eginez gero, ez da egongo beste eskaintzarik lan poltsa berdinetik urtebete igaro arte.

Hobekuntza bezala eskainitako izendapenetatik salbuetsiko dira egoerak, zeinetan seigarren artikuluko 3) paragrafoan jasoriko zuzeneko hautaketaren prozeduraren bidez betetzen diren lanpostuak”.

Hirugarrena. Aldatzea maiatzaren 15eko 175/2015 Foru Agindua, onesten duena Arabako Foru Aldundiaren Administrazio Orokorreko lan poltsen araudia, seigarrena bis artikulua berri bat sartuta. Honela dio artikulua horrek:

“Seigarrena bis artikulua. Haurdunaldi, amatasun eta aitatasun, adopzio eta harrera egoeran dauden pertsonentzako deiak

“Lanerako prest” edo “lanean” egoeran dauden izangaiek, hobekuntzari begira, arriskuko haurdunaldian, erditzean edo edoskitzaroan badaude edo amatasun- eta/edo aitatasun-lizentzia hartzen ari badira, arau hauetan jasotakoaren arabera dagozkien deiak jasoko dituzte, eta, onartzen badituzte, lanpostuaz jabetzeko finkatutako egunetik aurrera izango dituzte ondorioak izendapenek, nahiz eta benetan lanean hasi ez.

Halaber, “lanerako prest” edo “lanean” egoeran dauden izangaiek, hobekuntzari begira, adopzio edo harrera egoeretan badaude, arau hauetan jasotakoaren arabera dagozkien deiak jasoko dituzte, eta, onartzen badituzte, lanpostuaz jabetzeko finkatutako egunetik aurrera izango dituzte ondorioak izendapenek, nahiz eta benetan lanean hasi ez.

Aurreko paragrafoetan adierazitako inguruabarretako batean dauden pertsonen deiarri uko egiteak aldi baterako baja egoerara igarotzea ekarriko du, 3.2 artikuluan jasotako arrazoi justifikatua dela eta”.

AZKEN XEDAPENA

Foru agindu honek ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango du indarra.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko maiatzaren 27a

*Lehen diputatu nagusiordea eta Enplegu, Merkataritza,
Turismo eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatua*
CRISTINA GONZÁLEZ CALVAR